

**Gazteen arteko
indarkeria matxista,
azaletik lehen lerrora**



erreportajea



Gazteen arteko indarkeria matxista, ilunetik argitara

ESKUALDEKO GAZTEEN ARTEAN GERTATUTAKO ERASO MATXISTAK GERO ETA GEHIAGO GERTATU ETA SALATZEN DIRA. ZER EGIN, INDARKERIA MATXISTAREN LEKUKO, ERAGILE (HOTS, ERASOTZAILE) EDO ERASOA JASAN DUENA BAZARA?

Adi. Jarraian irakurriko duzuna 17 urteko neska baten testigantza da, Amurrión 16-30 urte bitarteko mutil batek egindako erasoari buruzkoa. Parranda giroan lagun batekin zegoela, txisa egitera joan zela dio. "Bertan mutil gazte bat nire ondoan txisa egiten hasi zen, bere zakila nire aurpegiaren ondo-ondoan jarritz. Ez dut ondo gogoratzen pixkabatedan nuelako, baina bere edalontzitik edateko esan zidan. Gogoratzen dudun hurrengo Amurrión kalezulo ilun batean esnatu nintzela da,

bakarrik eta prakarik gabe", azaldu du. Eta ez da bakarra. Ez dira gertaera isolatuak. "Nazkatuta gaude larunbat gauetan erasoak jasateaz", azpimarratu dute sare sozialetan Amurrión Otsemeak taldekoek azkenaldian gertatutako eraso matxista ugarien harira.

Entzun gaitzatela dinamika abiatu zuten ikasturtea hasi berritan, eta dagoeneko argitara eman dituzte zenbait eraso. Modu anonimoan harremanetan jartzeko aukera eskaini dute horretarako, **online** bidezko galdetegi bat

beteta gertaeren berri emateko. Isilpean eta ezkutuan geratzen den indarkeria matxista azaleratzea dute helburu, eta, genero indarkeriari aurre egiteko tresnak sortzea, emakumeak ahalduzko. Harreman eredu sanoen alde, "jaiak, plazak eta gauak gureak ere direlako, eta gozatu nahi ditugulako beharrezkoa ikusi dugu erasoak lau haizetara zabalduko dituen 'Entzun gaitzatela' tresna martxan jartzea", adierazi dute. Motzean, eraso mota oro publiko egiteko tresna anonimoa da kaleratu

Erasoak anonimoki salatzeke ekimena abiatu dute Amurrión, 'Entzun gaitzatela' lelopean

dutena: "Publiko egitearekin esan nahi dugu gure sare sozialak eta espazio publikoa erabiliko ditugula eraso hauen berri emateko kartel eta argitalpen bidez". Eta hala izan da. Hilabeteren buruan bierasoren berri eman dute behintzat. Interneteko esteka bidez (**labur.eus/entzungaitzatela**) ari dira erasoak biltzen. Lehenbizi, erasoak jasan duenaren eta eraso egin duenaren edo dutenen oinarritzko informazioa eskatzen da: erasoak jasan duenaren herria zein adina; erasotzailearen adin tartea, eta

erreportajea

erasotzaile kopurua. Ondoren, kasuaren deskribapena eskatzen dute: noiz eta non jazo zen (gauez, egunean zehar, ikastetxean, herriko plazan, leku ilun batean, sare sozialen bidez...). Baita azalpena ere (zer gertatu zen, nola hasi zen guztia, bakarrik zegoen emakumea edo ez...). Azkenik, eraso bide judizialean dagoen galdetzen da, eta ea bestelako behar edo ekarpenik partekatu nahi den. Laguntzeko prestutasuna ere jarri du mahaigainean Mugimendu Feministak, erantzuteko aukerak aztertzeko, testigantza presentzialki partekatzeko, eraso publikoki salatzeko edo laguntza psikologikoa errazteko, instituzioen baliabideak gogora ekartzeaz gain. Kontaktatzeko galdetegia, baina, laguntza behar -edo eskatu nahi-izatekotan soilik bete behar da.

Amurrioren ez ezik, Laudion ere gertatu dira eraso matxistak azken egunetan. Urriaren amaieran, esaterako, mutil gazte batek bere bikotea jo zuen kristalezko ontzi bat burura jaurtita. Abuztuan, berriz, Aiako gazte batek eraso homofobo bat salatu zuen.

Zer egin eraso jasan baduzu?

Erasoen lekukotzak biltzeko ekimenak abian egon arren, kontzientziazioa eta ahalduntzea ezinbestekoa dira. Zentzu horretan, azpimarratzekoa da azken urteetan Aiaraldeko Mugimendu Feministak egindako lana: gertaerak salatzen dituzte (tailerrak, mobilizazioak, muralak, topaketak...). Hein batean, asko dira kide horien gaitasunak kasuak.

Jai giroan ez ezik, beste esparru eta espazio askotan gertatzen dira eraso matxistak: lagunarteko zein bikote harremanetan, ikasgeletan, espazio digitaletan eta abar

“Edozein zapalkuntza edo eraso jasan edo ikusi duen pertsona orori dei egiten diogu Aiaraldeko Mugimenduko Feministarekin harremanetan jartzera”, adierazi dute. Maider Urtaran Larisgoiti kidearen hitzetan, babesa eta laguntza ematea dute xede, instituzioetatik haragoko lanketa beharrezkoa baita: “Eraso baten berri izatean, emakumearen egoera zein den jakin eta bere beharrak ezagutzen saiatzen gara. Ahal den nerurian babesa ematea da gure helburua. Argi dugu edozein erantzun eman aurretik beharrezkoa dela eraso jasan duenaren iritzia kontuan hartu eta hau lehenestea”. Erakundeek ere badute indarkeria matxistaren aurkako protokoloa, berdintasun arloetan eskura daitekeena.

Eguneroko erasoak

Dena dela, erasoak ez dira gau edo jai giroan bakarrik gertatzen. Ohikoan ere hamaika adierazpide ditugazteen egunerokoan, bizitzako esparru desberdinetan. Nork eta zein jarrerarekin okupatzen du espazio gehien eskoletako jolastokietan edota tabernetako barra ertzetan?

Matxismoaren ondorioz, eremu askotan antzeman daiteke berdintasun eza edota zapalkuntza. Goizeangoiz esnatzen denetik, ekintza ugari egiten ditu norbanakoak. Zer nolako eragina dute androzentrismoak (gizonezkoak, emakumezkoen aldean, subjektu eta erreferentzia nagusitzat hartzen dituen pentsaera, ikuspegi edo jokabidea)

“Indarkeria matxistari nola egin aurre aisialdian eta kirolean” solasaldia egingo dute Amurrioko kultura etxean azaroaren 23an

edota matxismoak gudan? Irratian, komunikabideetako albisteetan edota elkarrizketetan noren ahotsak gailentzen dira; nortzuk dira protagonista? Eskolara bidean, zaintza lanak norengan nagusitzen direla ikus daiteke? Etxeko zereginetara lotutako lanbide edo lantokietan (supermerkatuetan, etxebizitzak gisako eremu pribatuak garbiketa lanetan...), zein sexuko behar ginek dihardute batez ere? Konponketetan aritzen den langile bat imajinatzen (iturgina, obrako behargina, mekanikoa...) irudi feminino ala maskulino bat datorkizu burura? Kirol alorrean, zergatik lantzen eta saritzen dira desberdin emakumezko zein gizonezkoak? Zerrenda nahi beste luzatu daiteke, edonondik begiratu ere. Galdera horiek erantzungo dituzte azaroaren 23an Amurrioko Kultura Etxean antolatutako solasaldian. Hitzordua 18:00etan izango da eta “indarkeria matxistari nola egin aurre aisialdian eta kirolean” izango dute hizpide.

Unitate didaktikoa

2020an *Matxismo ezkutua, egunerokotasunean agerian* dosierra sortu zuten Kokoriko Hezkuntza Faktoriak Bor-bor elkartarekin batera. Bertan, HH, LH zein hortik aurrerako etapetan senide, lagunak edota ikasleak dituzten pertsonen bideratutako zenbait ariketa, “praktika on” eta baliabide eskaini zituzten aldizkari formatuan. Unitate didaktikoa aiaraldea.eus atarian dago eskura, eta hezkuntza komunitateari zabalduko diote datozen asteetan.



Josu Zalibar

iritzia

IAZ AIARALDEAN EGINDAKO IKERKETAREN ARABERA, GAZTEEN %27,9K DU NORMALTZAT GENERO INDARKERIA EDONOLAKO HARREMANETAN. INDARKERIA MATXISTAK, ORDEA, BESTELAKO ESPAZIO ETA ESPARRUAK ERE HARTU DITU.

Zergatik eta non gertatzen dira eraso matxista gehien?



Izaro Laudioko ikaslea

Erasoak ez dira esparru bakar batzuetara mugatzen. Eraso guztiak dira larriak, arazo berdina dutelako errotzat, patro berdinak jarraitzen dituztelarik. Oztopo handienetarikoa bat, hauek eraso matxistatzat identifikatzen ez jakitea da, gizartean oso errotuta baitaude, eta honek normaltzat hartzea eragiten du.

Hau guztiok egiten dugu banako, talde eta gizarte bezala; hortaz, ez gara errudun sentitu behar erasoak

pairatu, identifikatu eta aurre egiteko zailtasunak izateagatik. Gazteon kasuan, esango nuke lagunartean ematen direla eraso gehien, hezkuntzan zein aisialdiko arlo guztietan.

Erasotzaileen ekintzen ondorioen faltak behin eta berriro egiteko eskubidea dutela pentsarazten die. Guztion ardua da adi egotea, ez bakarrik zuzenean erantzunak emateko, baizik eta alde aurretik egoera hauei aurre egin ahal izateko tresnak sortzeko.

Oier Urduñako ikaslea

Gaur egun, gizon batzuek uste dut emakumeak baino gehiago direla, eta nahi dutena egin dezaketela haiekin, nahi dutenean. Ez da horrela, inolaz ere.

Nik, emakumeek eurek nahi duten moduan tratatzea nahiko nuke: pertsona bakoitzak aske izan behar du norekin egon, non, noiz eta abar erabakitzeko. Baina beti besteak errespetatuz.

Ez da normala emakumeek beldurra sentitzea etxera berandu joaten direnean, inoz jazarriak

edo behatuak sentitu direlako. Zentzu horretan, hezkuntza edo heziketa gehiago beharko genuke eskoletan eta gure etxeetan. Pixkanaka, guztion artean berdintasuna lortzea eta beldurrik gabe bizitzea gustatuko litzaidake.

KALE INKESTA:
labur.eus/feminismoaaiaraldean



Enartze Amurrioko irakaslea

Hezkuntzaren esparruan kokatzen da nire lan-eremua, lehendabiziko hamabi urteetan hain zuzen ere. Adin tarte honetan ez ditugu, eskoletan bederen, eraso matxista larriak ikusten. Bai ordea, begirada finduz gero, arinagoak diren beste batzuk, eta ez horregatik garrantzi gutxiagokoak: espazioa hartzeko moduan, taldekatzeak egiterakoan, hizkeran edota zereginak banatzeko orduan, esate baterako.

Orduan, eskolako maisu-maistrak inertzia hasten gara lanketa ezberdinak antolatzen, helburu handiak dituzten jarduerak eta dinamikak proposatzen, liburu-bilduma hezkidetzaileri begira... data zehatz batzuk hurbil ditugunean batez ere.

Uste dut hankamotz geratzen dela egiteko hau guztia eta horrela bakarrik alperrik gabiltzala. Esango nuke, gure haur eta gaztetxoek jarrera oro bezala, kutsu matxista duten jarrerak ere, jendarte

zabalararen islada direla eta, ondorioz, helduok geure buruari begiratu beharko geniokeela adiago. Generoaren araberako rolen gainean jartzen ditugun espektatibei erreparatu beharko genieke, espazioen antolaketa eta diseinuari begiratu (komun mistoak jarritz edo kaleko jolasguneari genero ikuspegitik buelta bat emanez), erabiltzen dugun hizkuntza zaindu, nori zein jokaera txalotzen edo arbuiatzen diogun hausnartu e.a.

Hazkuntzan eta hezkuntzan helduok haurrekiko ditugun begirada eta jokamolde ezberdinek, eragin zuzena dute haiengan eta txikitatik barneratzen dira bat edo beste. Jar diezaigun arreta, beraz, hezkuntza-komunitatea osatzen dugun guztiok.

INFORMAZIO GEHIAGO:
labur.eus/feminismoaaiaraldean



Maddi Isasi Azkarraga

*Aiaraldeko Mugimendu
Feministako kidea*

Ez gara histeriko batzuk indarkeria matxistaren gorakada bat eman dela esaten dugunean. Azken datuen arabera, hiru emakumetik* batek indarkeria matxista jasatenduetabostemakumetik* lauk sexu-erasoak. Indarkeria matxista mundu osoan emakumeen* lehen heriotza kausa da. Pandemiaren ostean, kaleetara berriro bueltatu garen honetan, gero eta gehiago ikusten ditugu emakumeon* kontrako erasoak, gero eta kasu gehiagotaz enteratzen gara. Baina asko ezkutuan geratzen dira. Gu, bereziki neska* gazteok, pandemiaren ostean, gero eta bananduago, urrundago gaudenaren sentsazioa daukat... Gero eta jendarte indibidualizatuago bateragaramatzantendentziak, gure arteko aliantzak eraikitzea zaildu egiten du; eta beraz, erasoak aurre egiteko zailtasunak areagotu ere, bakartuago gaudelako.

Gizonen arteko aliantzak, ordea, inoiz ez daude krisian. Eta honekin, ez dut esan nahi, soilik emakumeon* ardua denik, baizik eta kontrakoa: jendarte osoa interpelatu behar da eta instituzioek ere ardurak hartu behar dituzte: lehen mailako arazo politiko eta sozial bat delako.

Baina, Autodefentsa Feministaren printzipio nagusietako batek esaten du: ez dugu gu salbatzera etorriko den sasi-salbatzailerik behar, gu geu gai garelako. Bakarrik zaila da, baina emakumeok* osatzen dugun kolektiboan, eraiki ditzagun gure artako aliantzak.

Ez gara histeriko batzuk, ez zaizu zuri bakarrik gertatzen. Indarkeria matxista munduko biztanleriaren erdiak, sistema kapitalistaheteropatriarkalaren ondorioz, sistematikoki jasaten dugun zerbait delako.

‘Indarkeria matxistaren aurka Aiaraldea dantzan’ lehiaketa, abian



Aitor Burgoa

AIARALDEA KOMUNIKABIDEAK INDARKERIA MATXISTA SALATZEKO DANTZA ETA BIDEO LEHIAKETA ANTOLATUKO DU AZAROTIK ABENDURA. EDONORK HARTU AHALKO DU PARTE.

Aiaraldea Komunikabideak ‘Indarkeria matxistaren aurka Aiaraldea dantzan’ ekimena jarri du abian. Azaroaren 15era arte egongo da izena emateko aukera zabalik. Helburua emakumeen ahalduntzea sustatzea da, eta indarkeria matxista dantza bidez salatzea.

Horretarako, dantza izango da salaketa bide, ahalduntzea eta indarkeria matxistaren aurkako mezua dituzten abestiak erabili beharko baitituzte partaideek koreografia osatzeko. Horrez gain, euskara izan beharko da hizkuntza nagusi hautatutako musikan. Abesti proposamenak **aiaraldea.eus** atarian kontsulta daitezke,

baina partaide bakoitzak erabaki ahal du kantua. Zentzu horretan, eskualdeko dantza talde eta norbanakoei egin die dei Aiaraldea Komunikabideak ekimenean parte hartzeko. Dena dela, ez da parte hartzeko adin mugarik egongo. Eta, horrenbestez, librea izango da izen-ematea eta parte hartzea.

Nola egin izen-ematea?

Parte hartzeko, interesdunek mezua bidali beharko dute azaroaren 15a baino lehen feminismoa@aiaraldea.eus postara, taldearen edo norbanakoaren izena eta kontakturako telefono bat helarazita. Hala, antolatzaileak eurekin jarriko dira harremanetan,

grabaketa eta beste adosteko. Izan ere, Aiaraldea Komunikabideak bideoz grabatuko ditu lehiaketara aurkezteko lanak. Hain zuzen, bideo lehiaketa bidez erabakiko dira saridunak, **Aiaraldea.eus** atarian abenduaren 6tik 12ra abiatuko den bozketaren bidez. Alegia, boto gehien jasotzen dituen lana izango da irabazlea.

Sari banaketa abenduaren 12an egingo da, 12:00etan Aiaraldea Ekintzen Faktorian. Guztira bi sari egongo dira: boto gehien lortzen dituen lanak 300€ eskuratuko ditu, eta bigarren sailkatuak 200€. Egitasmoa antolatzeko Emakunderen dirulaguntza jaso du Aiaraldea Komunikabideak.

Azaroaren 15era arte egongo da apuntatzeko aukera. 500 euro banatuko dira sarietan, eta boto bidez erabakiko dituzte ikus-entzuleek irabazleak



kultur leihoa

Indarkeria matxistari aurre egiteko zenbait baliabide

SAREAN MAKINA BAT EUSKARRI ETA TRESNA DAUDE INDARKERIA MATXISTA LANTZEKO BALIAGARRIAK IZAN DAITEZKEENAK. BA AL ZENEKIEN ARAKALDOKO LIBURUTEGIAN HAUR, GAZTE ZEIN NAGUSIENTZAT 80 LAN BAINO GEHIAGO DAUDELA ESKURA?

Nola ahaldundu gaitezke, indarkeria matxistaren aurka? Instituzioetatik badira zenbait ekimen abian: Beldur Barik lehiaketa, autodefentsa tailerrak... Alabaina, norbanako gisa ere badira zabaldu beharreko zenbait bide. Izan ere, norbanakoaren ahalduntzea eginiko lanketaren arabera izango da beti. Zorionez, espazio digitaletan (Interneten) hamaika formatu eta eduki topatu daitezke. Dena den, badira espazio fisikoetan eskura daitezkeen materialak ere. Arakaldoko liburutegia, Aiarako Emakumeen Gela edota Urduñako apal morea dira adibide horietako hiru. Izan ere, liburu, joko eta material andana jarri dituzte herriarren eskura aipatutako txokoetan.

Arakaldoko udaletxeko biltegia izango da ziurrenik bilduma sorta handiena eskaintzen duena Aiaraldean. Aurtengo ekainean abiatu zuten ekimena, eta modu horretan atondu liburutegia, Jabi Asurmendi alkateak adierazi duenez.

Arakaldon, 100 lan eskura

Orotara, 80 lan inguru daude bizilagunen eskura. 100 aletik gertu ekarri dituzte, genero indarkeriari aurre egiteko jasotako dirulaguntza bati esker. Izan ere, hitzaldi edo jardunaldiak antolatu izan dituzte orain arte, baina ez dute horrenbesteko arrakastarik Arakaldo gisako herri txiki batean. Hargatik erabaki zuten bestelako formatu edo eskaintza diseinatzea herriarrentzat. Emaizta Arakaldoko Udalean dago ikusgai, apal batean bilduta baitituzte adin guztientzako liburu edo ipuin feministak. "Ideia txartel edo

eskumuturreko moduko bat egitea da, herritarrek nahi dutenean etorri ahal izateko, eta liburuak hartu edo uzteko", erantsi du. Dena den, eskualdeko edonork du aukera bertaratzeke, udal ordutegian bada (94 672 1353).

Gainera, adin orotarako baliabideak dituzte: "Hori izan zen apustua; haur, nerabe, gazte eta helduentzat materiala izatea. Hizkuntzaridagokionez, euskarazko eta gaztelarazko lanak eskatu genituen". Mailegusistema martxan dago jada, eta hartzailearen izen-abizenak eta kontaktua eskatzen dituzte udaletxean argitalpena etxeratzearen truke.

Aiarako Emakumeen Gelan ere badira zenbait euskari. Horien artean daude mahai-joko feministak zein filmak. Urduñako Alondegian, bestalde, apal morea kokatu zuten 2017an.

Sarean, noiznahi

Edozelan ere, Interneteko plataformetan topatu daiteke material gehien. Euskarazko lanen artean podcastak nagusitu dira azkenaldian, Berria.FM saioa (Berria egunkariaren multimedia ekimena) kasu, Maider Galardiren gidaritzapean feminismoari buruzko gai ugari jorratzen dituzte bertan. Bestalde, Gaztea kateak Hiru Damatxorekin elkarlanean **Zulora** podcast eta telebista saioa aurkeztu du udazkenean. Sareratutako lanen artean dago, **Gazteak eta arrazakeria** elkarriketa eta gogoeta programa, zeinetan Oihane Ofogo audioarrak hartu zuen parte. Zernahi gisaz, bideo formatuan edota podcast formatuan jarraitu daitezke, Youtube zein Spotify plataformetan bilaketa eginda.

Ikus-entzunezkoak



Sasiak eta haziak

DOKUMENTALA

Aiaraldea Ekintzen Faktoriak ekoitzi zuen ikus-entzunezkoa 2020an, genero indarkeria jasandako eskualdeko emakumeen testigantzeekin. Dokumentalak ahalduntzea du ardatz, eta eremu anitzetan jazotako gertaera matxisten inguruko gogoetak ditu oinarri. Hala, erasoaren eragin pertsonala zein kolektiboa jorratzen dira bertan, neska gazte zein helduen ahotik. Youtube plataforman dago ikusgai dokumentala.



Horma ikusezinak

DOKUMENTALA


Aiaraldea Komunikabideak 2018an eginiko ikus-entzunezkoan arlo ekonomikoan, lanesparruan, komunikabideetan, hezkuntzan zein aisialdian matxismoaren eragina landu zuten.



Zulora: matxismoaren sarean poadcasta

PODCASTA


Euskadi Gazteak eta Hiru Damatxok ekoitzitako podcastean, emakume gazteek sarean jasaten dituzten zapalkuntzak eta jarrerak dituzte hizpide. Adituen artean, Maialen Arteaga kazetaria, Estibaliz Linares ikerlaria, Marina Landa musikaria eta Irati Erauskin psikologoa daude.



Bakea ez da existitzen

BERRIA.FM PODCASTA

Berria komunikabideak Maider Galardi kazetariaren gidaritzapean ekoitzen duen podcast saioa da Berria.FM. **Bakea ez da existitzen** izeneko atalean genero indarkeriaz mintzatu ziren zenbait aditu. Saioa **Berria.eus** webgunean edota Spotify plataforman entzun daiteke.



Beti bezperako koplak

ANIMAZIO FILM LABURRA

Maialen Lujanbio bertsolariaren koplak irakurtaldiari 20 sortzailek eginiko animazioekin hornitutako film laburra da. Argiaren multimedia kanalean edota Youtuben ikusi daiteke.



Arrakala, zirrikitu bat haitzetan

DOKUMENTALA

Bilgune Feministak eta Topatuk osatutako dokumentala da Arrakala. "Heteroarauaren inguruko gaiak jorratu ditugu: familia zein elkarbizitza egoera ezberdinak, desira aukerak, identitateak eta sexu/genero sistemak horretan guztian duen eragina", zehaztu dute Youtubeko deskribapenean, "aldi berean, mugimendu feministak zein LGBTQ mugimenduak haitza arrakalatzeko bidean egindako ekarpenak ere ekarri nahi izan ditugu lehen lerrora".

Musika

Zer izan

HUNTZA FT MAFALDA & TREMENDA JAURIA

‘LUMAK’ DISKOA

E.e.i.e

KOBAN

‘KOBAN’ DISKOA

Konplize ditut eta

MIKEL MARKEZ

‘INDAR BAT DABIL HOR’ DISKOA

Erre zenituzten sorginak

XABIER SOLANO

(BIZKARGI DANTZA TALDEAREN KOLABORAZIOA)

Gona gorria

AMAK

‘AMAK’ DISKOA

Denok zu

GOAZEN

IKER LAUROBAREN KOLABORAZIOA

Libre

IZARO

IZARO

Sex-sexua

HEMENDIK AT

‘ORAIN’ DISKOA

Kolpe

KAI NAKAI

‘BAIMENIK GABE’ DISKOA

Sentipenak askatu

YOGURINHA BOROVA

‘EMAKUME’ DISKOA

Aske maitte

GATIBU

‘ASKE MAITTE, ASKE BIZI’ DISKOA

Morez

ULUKA

SINGLEA

Indar morea

HAIZE GORRIA

BIDEOKLIPA

Ez beti da ez

ALARMA MOREA

SIINGLEA

Ausartak

BALOREAK

‘BALOREAK’ DISKOA

Vinu, cantares y amor

ANARI

BIDEOKLIP BEREZIA

Literatura eta antzerkia



Kontrako eztarritik

UXUE ALBERDI ESTIBARITZ

Uxue Alberdi Estibaritz idazle eta bertsolariak 15 emakume bertsolari elkarrizketatzen ditu “Kontrako eztarritik” liburuan. Hala, plazetan zein bertsolaritzan jasandako zapalkuntzak azaleratzen dira, ahalduntzeko eginiko lanarekin batera.



Nik sinesten dizut

SAMARA VELTE MORAN

Samara Velte Moran kazetari eta idazleak idatzitako liburuak “bortxaketaren kultura eta Sanferminetako kasua” ditu hizpide. Txalaparta argitaletxeak ekoitzitako lana da, eta *Manada* ezizenez ezagun egin zen 2016ko bortxaketa kasuaren kronika liburua da.



Lau eme ikuskizuna

DANTZA

Haatik dantza konpainiaren emanaldi honetan gorputz mugimenduen bitartez “sakonean zapalduak eta otzanak ziren garaiko emakumeak” islatzen dituzte, Mugimendu Feministak emandako aurrerapausoak kontatuz.




Birritan bortxatua

ANTZERKIA

Aldatzen Laguntzen antzerki taldeak osatutako obra da. Bortxaketa du gaitzat. Aktoreak eta egileak Saioa Royo eta Ion Martinez dira. Emakumezkoa da protagonista, eta erasoaren ondorioak ditu hizpide lanak.

Bideoklipak



“Eraso sexistarik ez”

YOGURINHA BOROVA

Yogurinha Borova audioarrak sexismoaren hamaika adibide plazaratzen ditu abesti eta bideo horretan. “Sentipenak askatu” izeneko lanean, aldiz, sexu aniztasuna du aldarri.



“Nire gorputza da”

KANTU KOLORE

Haurrak protagonista izanik, gorputz mota oro dute hizpide bideoklipean, aniztasunari aitortza eta errespeturako deia eginez.



“Gu gara aurre egingo dizueten emakumeak”

SASTRAKA

Sastraka gaztetxeak iazko azaroaren 25ean plazaratu zuen ikus-entzunezkoa eta emakumeen erailketak salatzen dituen aitortza kantua.



“Printzesak eta printzeak”

ESTI MARKEZ

Esti Markez abeslariak Sara Azurza eta Olatz Salvador kantariekin grabatutako bideoklipean emakumeen ahalduntzeaz mintzo dira.

solasean.

HITZALDI ZIKLOA

AZAROAK 23

18:00 | AMURRIOKO KULTURA ETXEAN

- *"NOLA EGIN AURRE INDARKERIA
MATXISTARI AISIALDIAN ETA KIROLEAN?"*

ABENDUAK 9

19:00 | AIARALDEA EKINTZEN FAKTORIAN

*"PANDEMIAREN
ERAGINA
AIARALDEKO
EMAKUMEENGAN*"*



EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDE
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

**AIA
RAL
DEA**

KOMUNIKABIDEA
**FAK
TO-
RIA**